

Bilbao Ekintza EPELen #BilbaoGabonak 2022 ekimenean Gabonetako etxolen adjudikazioa egiteko deialdia.

Bilbao Ekintza EPELen Presidenteak, 2022. urteko uztailaren 29an Ebazpenaren bitartean, #BilbaoGabonak ekimenean Gabonetako etxolen adjudikazioa egiteko deialdia 2022 onetsi du.

1. Aurkezpena

Bilbao Ekintza EPEL erakundea Bilborako ekonomia- eta gizarte-aberastasunaren sorrera sustatzen duen udal-erakundea da; horretarako, hiria bultzatzen du inbertitzeko leku erakargarri gisa eta enpresak sortzen eta hazten laguntzen du, laneratzeko aukerak hobetzen dituela. Besteak beste, Bilboko merkataritza-sektorearen jarduera ekonomikoa eta dinamizazioa sustatzeko helburua du.

Helburu horrekin Bilboko erakargarritasuna areagotu nahi da. Horretarako, ekintzak koordinatzeko Gabonetako estrategia baten bitartez, hirira etortzeko nahia sortu nahi da, jardueraz gozatzeko, eta nortasun irizpideak kontuan hartuta (aisia, kultura, erosketak...).

Era berean, ekintza erakargarriak sustatuko dira bertako eta inguruko herritarrentzat. Horretarako, Gabonetako giroa duen espazio homogeneoa sortu nahi da, eta aisia, gozamena eta jarduera ekonomikoa sustatuko ditu, betiere euskal nortasunari eutsiz.

Helburua lortzeko diseinatutako ekintza eta programen artean, Bilboko komertzioen jarduerak sustatu nahi dira, hiriko komertzioak hurbiltzen eta erakusten dituzten ekintza eta ekitaldien bitartez.

Bilbao Ekintza EPELek merkataritza-espazioa sortu nahi du, komertzioei eta bertako ekoizleei Gabonetako kontsumorako produktuak eskaintzeko aukera emanez.

Komertzioen eta bertako ekoizleen presentziaren bitartez, sustapenean lagundu nahi da, eta Gabonei lotutako espazio berri bat sortzea ahalbidetu. Komertzioen presentziak nahi den nortasun lokalaren izaera emateko aukera eskainiko dio hiribilduari.

2. Helburua

Oinarri hauek ondoren ezarritakoak erregulatzeari dute helburu: Gabonetako Hiriaren barruko Gabonetako Merkatuaren espazioen adjudikazioa, antolaketa eta gauzatzea.

Hauxe da adjudikazioaren helburua: Bilbao Ekintza EPELek sortutako Gabon Hiria merkataritza-espazioan jarriko diren 6 m² inguruko egurrezko etxola tematizatuak betetzea bertan baimendutako produktuak saltzeko.

Adjudikazioak pertsonalak eta besterenezinak dira eta “prekarioan” emango dira. Horiek Bilbao Ekintza EPELen aldebakarreko tolerantzia egintzak baino ez dira, eta horregatik, edozein unetan ezeztatu daitezke, kalte-ordaina eskatzeko eskubiderik gabe. Adjudikazio horiek ezeztatu daitezke erabiltzeko baldintza orokorrak betetzen ez direnean, kalteak eraginez gero, edo espedientearen justifikatu den egoera edozein dela.

3. Lekua eta data

Gabonetako Merkatua itsasadarraren bazterretan gauzatuko da, horretarako bideratutako espazioetan, 2022ko abenduaren 2tik 2023ko urtarrilaren 5era, biak barne. Orduetgia: 12:30etik 21:00ak arte, 2022eko abenduaren 12an, 13an, 14an, 15ean, 19an eta 20an izan ezik, horietan orduetgia 17:30etik 21:00etara izango baita.

4. Etxolen ezaugarriak

Egurrezko hemeretzi etxola tematizatu jarriko dira gehienez, eta bakoitzak gutxi gorabehera 6 m²-ko azalera izango du.

Aurrealdean edo alboan irekidura dute, barra eta leiho-ate baskulagarria ere bai; gauean erabateko itxiera ahalbidetzen duen sistema bat ere badute.

Bai teiltuak (bi isurkikoa) bai zoruak beharrezko babesa dute horien barruan ura sartzea ekiditeko.

Argi-puntua dute barruan, beharrezko instalazio elektriko indibidualak, eta elektrizitate-hornidura barruan eta kanpoan izateko aukera ere bai.

5. Parte hartzeko baldintzak

Eskaera aurkezteko aukera izango dute, geroago azalduko den moduan, Bizkaian jarduten dutenek, betiere Bilbokoek izango dute lehentasuna, eta honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Europako Batzordeko 651/2014 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, mikroenpresa edo ETE (enpresa txiki eta ertaina) izatea. (I. eranskina).
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta eman izana, elikagaiei lotutako **txikizkako merkataritza-enpresa epigraferen** batean: okintza, pastelgintza, opildegia, gozotegia, Gabonetako apaingarriak eta opariak. Artisautzari lotutakoak baztertuko dira.
- Gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izatea, eta edozein kasutan, administrazioarekin harreman juridikoa oztokatzen duen jarduteko gaitasun juridikorik ez izatea.
- Salduko diren produktuen araudi erregulatuaren gaineko baldintzak eta irizpideak betetzea.
- Egunean egotea, bai administrazio publikoekiko dagozkion zerga-betekizunetan, bai Gizarte Segurantzarekiko bete beharrekoetan. Bilboko Udalarekiko zerga-egoera ofizios egiaztatu ahal izango du Bilbao Ekintza EPELek.
- Jarduera estaltzen duen erantzukizun zibileko aseguruia izatea kontratuak irauten duen bitartean.

6. Eskaerak aurkezteko epea, lekua eta modua

Deialdi honen iragarkia Bilbao Ekintza EPELen web-orrian eta BAOn argitaratuko da azken hori da argitalpen ofiziala, interesdunek eskabidea aurkez dezaten.

Proposamenak aurkezteko dokumentazioa ondoko helbide elektroniko honetara bidali beharko da: comercio@bilbaoekintza.bilbao.eus, **2022ko irailaren 7ko 09:00etatik 2022ko urriaren 14ko 13:00ak arte**. Ez da onartuko eskaerarik epez kanpo. Dena den, BAOn aipatutako hasiera-dataren ondoren argitaratzen bada, epea argitaratu ondorengo lehenengo egun baliodunean irekiko da, baina horrek ez du amaitzeko eguna aldatuko.

Nahi izanez gero, interesdun bik edo gehiagok eskaera batera egiteko aukera izango dute. Kasu horretan, komertzio eskatzaile bakoitzak postuan zenbat denbora igaroko duen zehaztu beharko du.

Guztiak bete beharko dituzte oinarri hauetan eskatutako baldintzak, adjudikazioarekin lotutako betebeharrekin batera, ondore guztietarako eskaera bakarra eginez.

Interesdunek behar bezala betetako eskaera aurkeztuko dute, erantsitako erudian azaltzen den moduan (II. eranskina). Era berean, paperezko euskarrian eta euskarri informatikoan (CDa edo DVDa) aurkeztuko ahal izango dituzte produktuen edo artikuluen eskaintzak; alde bakarrean idatzitako 10 orrialdetan, gehienez. Muga horrek A3 eta A4 tamainetako orriak eta dokumentazio grafikoa hartzen ditu barne. Eskaintzaren aurkezpenak 10 orrialdeko muga gaindituz gero, lehenengo 10 orrialdeak baino ez dira aintzat hartuko.

Eskaera hurrengo dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da:

- **BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA:**
 - Komertzioaren **deskripzio-memoria** laburra, erantsitako ereduaren arabera, salduko diren produktuak eta horien ezaugarriak adierazita.
 - **Eskatzailearen NANaren fotokopia** edo atzerritarren/enpresen (**IFZ edo IFK**) kasuan, hori ordezkatzeko duen dokumentu ofiziala.
 - Alta JEZen, dagokion epigrafean.
 - **Zerga-ziurtagiriak**. Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekiko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko bete beharrekoetan egunean egotea, edo alta dagokion **Mutuan**.
 - Erantzukizun zibileko aseguru-poliza bermatzen duen **aseguru-etxearen ziurtagiria**.

- **DOKUMENTAZIO GEHIGARRIA:**
 - Elikadura-produktuak saltzea berekin dakartzaten eskaerak osasun- eta higiene-baldintzak bete beharko dituzte, eta, beraz, maneiatzailerak ziurtagiria aurkeztu beharko dute; hau da, **elikagaiak maneiaturiko dituzten pertsonen higiene eta segurtasunean prestakuntza bermatzen duen ziurtagiria**. Komertzio eskatzaileak, lehiaketan adjudikazioa lortuz gero, Osasun eta Kontsumo Sailak ezarritako prozedura jarraitu beharko du, ondoko esteka honetan ezarritakoarekin bat etorrituz:

https://www.bilbao.eus/cs/Satellite?c=BIO_Servicio_FA&cid=1279195938529&language=eu&pageid=3000070319&pagename=Bilbaonet%2FBIO_Servicio_FA%2FBIO_Servicio

7. Adjudikazio-prozedura

Oinarri hauek norgehiagoka bidez iragarriko dira, horien espezifikotasunak kontuan hartuta, eta, modu horretan, interesa duen orok eskaera aurkeztu ahal izango du. Etxolen adjudikazioak oinarri horietan ezarritako irizpideek eskatutakoa kontuan hartuta, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira.

Eskaera aurkezteak oinarri hauetan agertzen diren atal guztien erabateko onespena adierazten du, eta Bilbao Ekintza EPELek hartutako xedapenekin eta akordioekin ados egotea dakar.

Proposamenak aurkezteko epea bukatzen denean, instrukzio organoak baldintzak betetzen diren egiaztatuko du, eta aurkeztutako eskaeren zerrenda egingo du.

Aurkeztutako eskaeran edo erantsitako dokumentazioan akats materialik aurkituko balu, interesdunei jakinaraziko die, eta akatsak zuzentzeko epea emango da; beti bost (5) egun baliodun, gehienez.

Horiek horrela, aurkeztutako eskaerak funtsezko akatsik edo hutsunerik badu, eta edozein kasutan, epea bukatzen bada akats horiek zuzendu gabe, ez da eskaera hori onartuko.

Behin-behineko zerrenda Bilbao Ekintza EPELen web-orrian argitaratuko da, eta alegazioak egiteko epea hiru eguneko izango da.

Etxolak emateko prozeduraren ebazpen-erabakia arrazoitua izango da, eta postu horiek betetzeko baimendutako pertsonen behin-behineko zerrenda emango du aditzera.

Dirulaguntza ematen edo ukatzen duen ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio. Haren aurka Zuzendaritza Nagusian aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da.

Baimendutako komertzioek behin-behinean, aldez aurreko errekerimenduz, **500 euroko partaide-kuota** ordaindu beharko dute, hamar (10) egun baliodunen buruan, behin-behineko zerrenda argitara ematen denetik kontaktzen hasita.

Epea bukatzean eskatzaileak eskatutakoa betetzen ez badu eskaerari uko egiten diola ulertuko da, eta, beraz, zerrendako hurrengo komertzioari emango zaio baimena.

Berdin jardungo da adjudikaziodunen batek etxolari uko egingo balio.

Baimendutako komertzio guztiek behin-behinean ordaintzen badute kuota, aurkeztutako behin-behineko zerrenda hori behin betikotzat joko da.

8. Eskaeren azterketa eta postuen adjudikazioa

Eskaeren instrukzioa eta balorazioa

Akatsak edo ez-egiteak behin zuzenduta, aurkeztutako eta onartutako eskaeren zerrenda argitara emango da, baloratzeko.

Aurkezten diren eskaerak Merkataritza Saileko arduradunak eta Merkataritza Saileko teknikari batek osatutako balioespen-batzorde batek ebaluatuko ditu.

Produktu-kategoria bakoitzari etxola guztien ehuneko bat egokituko zaio, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- Etxolen % 30 elikagaiak saltzen dituzten komertzioentzat.
- Etxolen % 50 oparitzeko gauzak saltzen dituzten komertzioentzat.
- Etxolen % 20 Gabonetako apaingarriak saltzen dituzten komertzioentzat.

Komertzioen hautaketa haiek lortutako puntuazioaren menpe egongo da (**60 puntu, gehienez**) produktu-kategoria bakoitzeko balorazio-irizpideei jarraituz, eta honako irizpide hauekin bat etorritik:

a. Elikadura produktuak saltzen dituzten komertzioak

- Produktuen aniztasuna: 20 puntu gehienez, komertzio eskatzaileek aurkeztutako eskaintzekiko proportzionala. Eskaintzan aurkezten diren eguneroko produktu motak eta aniztasuna baloratuko dira.
- Produktu ekologikoak: 10 puntu emango zaizkie produktu ekologikoen eguneroko salmenta aurkezten duten eskaintzei.
- Elikadura-intolerantziatarako egokitutako produktuak: 10 puntu emango zaizkie haien eskaintzako eguneroko produktuetan elikadura-intolerantziatarako egokitutako eguneroko produktuak eskaintzen dituztenei.
- Berezko elaborazioa duten produktuak: 20 puntu emango zaizkie haien eskaintzan berezko elaborazioa duten produktuen eguneroko salmenta eskaintzen dutenei.

b. Oparitzeko gauzak saltzen dituzten komertzioak

- Produktuen aniztasuna: 20 puntu gehienez, komertzio eskatzaileek aurkeztutako eskaintzekiko proportzionala. Eskaintzan aurkezten diren eguneroko produktu motak eta aniztasuna baloratuko dira.
- Produktuen originaltasuna eta kalitatea: 20 puntu gehienez, komertzio eskatzaileek aurkeztutako eskaintzekiko proportzionala.
- Euskal kultura sustatzen duten artikulak: 20 puntu emango zaizkie gehienez, horrelako produktuak eskaintzen dituztenei.

c. Gabonetako artikulak saltzen dituzten komertzioak (Gabonetako apaingarriak, jaiotzak, Christmasak eta txantxetarako gauzak)

- Produktuen aniztasuna: 20 puntu gehienez, komertzio eskatzaileek aurkeztutako eskaintzekiko proportzionala. Eskaintzan aurkezten diren eguneroko produktu motak eta aniztasuna baloratuko dira.

- Produktuen originaltasuna eta kalitatea: 20 puntu gehienez, komertzio eskatzaileek aurkeztutako eskaintzekiko proportzionala.
- Tradiziozko euskal kultura sustatzen duten artikuluak: 20 puntu emango zaizkie horrelako artikulua eskaintzen dituztenei.

Produktuen edo artikuluen hiru kategorietako etxolen bat bete gabe geratzen baldin bada, antolatzaileek postua beste kategorietako eskatzaileei adjudikatuko diote, zerrendaren ordenari jarraikiz.

Azkenean berdinketa gertatuko balitz, eskaeren ordena da kontuan hartuko den irizpidea. Ondore horietarako, egindako akatsak konponduz gero, eskaera lehenengo aldiz egindako data joko da sarrera datatzat, oinarri hauetan eskatutakoari jarraikiz.

9. Baimendutako komertzioen betebeharrak

Baimenak pertsonalak eta eskualdaezinak dira, oinarri hauetan eskatutako irizpideak bereziki betetzen direnean baino ez delako baimenik ematen. Horregatik, postua beteko dute bakarrik baimenaren titularrak edo eskaeran aipatutako horren ordezkioak.

Baimendutako komertzioak agindutako muntaketa eta desmuntaketa ordutegietara egokitu beharko dira, eta, horretarako egunak abenduaren 1a eta urtarrilaren 7a izango dira, hurrenez hurren.

Etxolak 2022ko abenduaren 2tik 2022ko urtarrilaren 5era egon beharko dira zabalik, egun hauek salbu: abenduak 25 eta urtarrilak 1. Etxolaren titularrak ordutegia bete beharko du, eta etxola ezin izango du bakarrik utzi, arrazoi justifikaturik izan ezean. Horrelakorik gertatzekotan, aurrez jakinarazi beharko du.

Etxolek ezin izango dute itxi bi egunez baino gehiagoz, justifikaziorik gabe, eta Bilbao Ekintza EPELeke Merkataritza Arloko arduradunari jakinarazi gabe. Bestela, baimena errebotatu eta ondorerik gabe utziko da.

Etxola guztiek izango dituzte kartelak euskaraz eta gaztelaniaz

Baimendutako guztiek oinarri horiek guztiz bete beharko dituzte, araudi orokorrarekin eta saltzen duten produktuari dagokionarekin batera. Ez da onartuko eskaeran aurkeztu ez den produkturik saltzerik, salmentarako artikuluen kalitatea, osaera eta prezioa partaidearen ardura izanik.

Merkatariak arauak betetzen ez baditu antolatzaileek jakinaraziko diote, eta egokitzen jotzen duten edozein zigor jar diezaioke; etxola ixtea edo hurrengo edizioetan parte hartzea ukatzea ekar dezake.

Produktuak etxolaren barrualdeak markatutako eremuan baino ez dira jarriko, eta debekatuta dago alboko korridoreetara inolako produkturik ateratzea.

Debekatuta dago publizitatea, propaganda, kartelak eta abar jartzea. Horrez gain, postuetan megafonia indibidualez musika partikularra jartzea ere debekatuta dago.

Etxolek behar bezala egokituta egon beharko dute jendearentzat zabalik dagoen ordutegian. Postuen garbiketa partaide diren komertzioen ardura izango da, erabilitako espazioa

hondakinez libre uztea haien betebeharra izango baita, eta beharrezko neurriak hartuko dituzte bidea eta espazio libre publikoak ez zikintzeko.

Merkatuko ordutegian etxolaren ardura hartzea eta bertan saltzen diren produktuen segurtasuna bermatzea.

Partaideek eskuragarri izango dituzten udal instalazioen erabilera egokia eta zuzena egin beharko dute, eta horiek jarduera hasi baino lehen zeuden moduan utzi beharko dituzte.

Adjudikaziodunek ezin izango diote Bilbao Ekintza EPELi Gabonetako Merkatuan zehar izandako eguraldi txarraren ondoriozko kalte-ordainik eskatu.

Jarduerak baimendutakoen kontura burutuko dira. Bilbao Ekintza EPELek ez du jarduerak irauten duen bitartean gerta daitezkeen galtzeen edo lapurreten ardura hartuko.

Postuek erreklamazio-orri ofizialak izango dituzte kontsumitzaileentzat eskuragarri, kartel eredu ofizialaren bidez aurkeztu beharrekoak.

10. Erakundearen betebeharrak

Bilbao Ekintza EPEL erakundea Gabonetako Merkatuaren antolatzaile modura, honako hauetaz arduratuko da:

- Etxolak baimendutakoen esku jartzea. Korrante-harguneak eta argiztapena Bilbao Ekintzaren kontu izango dira, horien kontsumo elektrikoarekin batera.

- Komertzioentzako etxolen adjudikazioa eta banaketa egingo da, eta postu bakoitzeko kartel identifikagarria jarri beharko da: Bilbao Ekintza EPELek erabakiko du adjudikaziodunen etxolen kokalekua. Horretarako, etxola bakoitzean eskainiko diren artikuluen ezaugarriei buruzko dokumentazioa hartuko da kontuan.

Bilbao Ekintzak berarentzat gordetzen du produktu berdina edo ekintza bera eskaintzen duten etxola kopurua murrizteko eskubidea.

- Etxolen eta ingurua Gabonetako motiboz apaintzea.

- Paperontziak edo edukiontzi komunak jartzea.

- Ordutegi komertzialaz kanpoko zaintza kontratatzea.

- Ekitaldiaren zabalkundea: Erakundeak berarentzat gordetzen du argazkiak ateratzeko edo standetan erakusten diren produktuak filmatzeko eskubidea eta erreproduzioak publikazio eta promozio ofizialetan erabiltzeko eskubidea.

Bilbao Ekintzak berarentzat gordetzen du oinarri hauek interpretatzeko eskubidea, zalantza sor dezaketen edozein egoeratan, datak, ordutegiak eta aurreikusitako postuen banaketa aldatzeko, komenigarritzat jotzen duenean. Hartutako erabakiak behin betikoak izango dira.

11. Datu pertsonalen babesa

Abenduaren 13ko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorriz, Bilbao Ekintzak adierazten du oinarri hauek izapidetzearen ondorioz agirietan jasota geratzen diren datu pertsonalak berariazko fitxategi batean gordeko direla. Fitxategia Bilbao Ekintza EPELen titulartasunekoa izango da eta Enpresak Sustatzeko Sailak ematen dituen zerbitzuak kudeatzea du helburu. Helbidea hauex da: Nafarroa kaleko 5. zenbakia. 48001 – Bilbo.

Nolanahi ere, interesduna horren jakitun geratzen da eta baimena ematen du haren datuak helburu horretarako erabil daitezzen eta aholkularitza-enpresei, erakunde publikoei, fundazioei, elkarteei edo finantza-erakundeei laga dakizkien, enplegu-politika aktiboak kudeatzeko, lan-merkatuko bitartekari jarduteko eta lan-merkatuari buruzko azterketak eta analisiak egiteko.

Bilbon, 2022ko uztailaren 29an




Xabier Ochandiano Martínez

Bilbao Ekintzako Presidentea

I.ERANSKINA

ETEren definizioa: 2014ko ekainaren 17ko Batzodearen 651/2014 Araudiko I.eranskinaren arabera, laguntza maila zahatz batzuk merkatu erkidearekin bateragarriak adierzaten dituen Tratatuaren 107. eta 108. Artikuluak aplikatuz:

1.artikulua

Enpresa

Enpresatzat jotzen dira jarduera ekonomikoa garatzen duten entitate guztiak, forma juridikoa gorabehera. Bereziki, enpresatzat jotzen dira artisautza-jarduera edo banakako edo familiako beste jarduera batzuk egiten dituzten entitateak, pertsonen sozietateak eta modu erregularrean jarduera ekonomikoa garatzen duten elkarteak.

2.artikulua

Enpresen kategoriak zehazten dituzten langile kopuruak eta finantza mugak.

1. Mikroenpresa, enpresa txiki eta ertaina (ETE) kategoriaren barruan daude 250 pertsona baino gutxiagoko enpresak, eta urteko 50 milioi eurotik gorako negozio-bolumnea ez dutenak edo 43 milioi eurotik gorako urteko balantze orokorra ez dutenak.
2. ETE kategorian, enpresa txikia 50 pertsona baino gutxiagoko enpresa da, urteko negozio bolumenik edo urteko balantze orokorrak 10 milioi euroak gainditzen ez baditu.
3. ETE kategorian, mikroenpresa 10 pertsona baino gutxiagoko enpresa da, urteko negozio bolumenik edo urteko balantze orokorrak 2 milioi euroak gainditzen ez baditu.

2. ERANSKINA

ESKAERA BILBOKO 2022 GABON MERKATUAN PARTE HARTZEA	Sarrera erregistroa
---	----------------------------

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK

Titularraren izen-abizenak		IFZ	
Baimendutakoaren izen-abizenak		IFZ	
Merkataritza izena			
Helbide soziala			
Udalerrria		Probintzia	
Telefono zenbakia		Fax-zenbakia	
Helbide elektronikoa			

Nik. _____, jaunak /andreak _____ NAN
zenbakia duenak, eskabide honetan jasotako Erakunde Eskatzailearen izenean eta ordezkartzan,

ADIERAZI DU,

Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren xx zenbakian (2022ko xxxren xx an) argitaratu da Bilboko Gabonetako Merkatua parteartzea eskuratzeko deialdia, eta deialdi horretarako baldintzak betetzen ditu.

ESKATU DU,

deialdian onartua izatea. Horretarako ondoko **administrazio-agiriak** erantsi dira:

- Eskatzailearen eta baimendutako pertsonaren (halakorik baldin badago) NANA.
- EJZn alta.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatea.

